

Donostia, 2016ko urriaren 21a

KONTROL MOZIOA EUSKARA IKASTAROAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak udalerriko euskaltegiekin batera urteak darama langabetuentzako doako euskara ikastaroak antolatzen. Ikastaro horiek Donostian errolatuta dauden hemezortzi urtetik gorako langabetuei zuzenduta daude. 120 eskola-ordu emango dira urritik abendura arte.

Zinegotzi ordezkariak oso balorazio positiboa egiten du ikastaro horien gainean: 2015ean 148 pertsonak parte hartu zuten eta horietatik 42k jarraitu zuten euskara ikasten doako ikastaroa amaitu eta gero. 106k, % 71,62k, ordea, ez zuten jarraitu. Miren Azkaratek erantzun zuen ez jarraitzearen atzean zenbait arrazoi egon zitekeela: behar besteko maila lortu izana edo talde berri batean sartu nahi ez izatea. Dena dela, logikoena da pentsatzea ez jarraitzeko arrazoi nagusietako bat dela amaitu eta gero doakoa ez izatea; izan ere, urritik ekainera arteko egunean bi orduko ikastaro batek 800 euro inguru balio ditu eta, udal laguntzen oinarrien arabera, laguntzak ezin du gainditu matrikularen kostuaren % 50.

Aurten, udalaren webgunean argitaratutako datuen arabera, 179 pertsonak egin dute ikastaroa egiteko eskaera. Horietatik 142, onartuak izan dira, 19, itxaron zerrendan gelditu dira eta gainerako 18ri ez zaie talderik esleitu.

Gure ikuspegitik, datuek erakusten dute euskara ikasi nahi duten baina matrikula ordaindu ezin duten langabetu asko daudela; horrez gain, ikusita zenbat diren itxaron zerrendan gelditutakoak eta talderik ez dutenak (37 guztira), badirudi Udalak ematen duen laguntza ez dela nahikoa dagoen eskaria betetzeko.

Irabazi Donostiak irizten dio ezen, egia bada ere euskararen erabilera sustatu behar dela, beharrezkoa dela, halaber, udal gobernuak ahalegin handiagoa egitea euskara ikasteko erraztasunak emateko, batez ere, ikasketen kostuari aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen kasuan. Hori horrela, planteatzen dugu ikastaro luzeagoak egiteko aukera denboran luzatu behar dela, ikaskuntzan sakontzeko. Iruditzen zaigu euskara ikasteko ikastaroen kostuak eragin dezakeen handicapari buruz zinegotzi ordezkariak Batzordean emandako erantzuna ez datorrela bat errealitatearekin; izan ere, lehen aipatutako datuek erakusten dute langabetuentzako ikastaro bat egin duten lautik ia hiruk, ikastaro hori

amaitu eta gero, ezin izan dutela beren kontura ikasten jarraitu; horrek erakusten du kostua ezin dutela bere gain hartu.

Hori dela-eta, hauxe da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio hirian langabetuentzat antolatzen diren doako euskara ikastaroek urritik ekainera bitarte iraun dezatela.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio legealdi honetan zehar ezar dezala euskararen ikaskuntzaren doakotasuna.

Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.